

# Besarkada



UXUE APAOLAZA LARREA

**B**atzuetan *batbihiru* bat egiten duzu, eta esan, esan behar zen lekuan, ziur dirudizu, eta amaitzean, zotinka negar egin nahi duzu. Dena bukatu denean, ekipokoen goxotan, besarkada bat eman dizu, luzea, eusten ari balitzaizu bezala.

Agian, behin, lagun uste zenuen lankide batekin oheratu zinen, sakondu ustean, baina biharamuna izoztuta iritsi zen, eta lagun zena mehatxu da orain. Eta, nola ez, bilera batean elkartu zarete.

Agian, lagun bat egin duzu, egunero-egunero idazten zenizkieten elkarri zuen intimitatearen puskak, kontraturik sinatu gabe. Eta bat-batean isildu zen, eskubidea zuelako. Eta bilera batean ikusi duzue elkar.

Agian, lagunak zineten lehendik, baina testuingurua aldatu da, eta, dirudienez, ez zineten hainbeste, eta zure ahulgune guztiak dakizki orain. Ondoan duzu bileran.

Agian, besterik gabe, zure nagusia da.

Batzuetan *batbihiru* bat egiten duzu, eta esan, esan behar zen lekuan, ziur dirudizu, eta amaitzean, zotinka negar egin nahi duzu. Dena bukatu denean, ekipokoen goxotan, besarkada bat eman dizu, luzea, eusten ari balitzaizu bezala. Denek ikusi dute afektu keinu hunkigarri bat, zuk bakarrik ikusten duzu hesitzen zaituen konstriktor haratesia. Eskua luzatu duzu, norbaitek heldu, eta aska zaitzan. ●



## MOTZEAN

“Laborantza herrikoiaz bizi eta elikatu” lelopean egin dute aurtengo Lurrama, Miarritzen, Euskal Herriko Laborantza Ganbarak antolatuta. “Erakundeen eta nekazaritzako talde industrialen menpe” dagoen elikadura-ereduaren aurrean, nekazaritza eta elikadura burujabetza sustatu dute aurten ere.

Etxebizitzaren arazoari irtenbidea ematea helburu, Nafarroako 21 udalerrri tentsio handiko eremu izendatzeko prozesua abiatu du gobernauk.

Lizarrako jaietan, txosnen debekua aurka manifestatu ziren milaka lagun. Askok ‘Bajadica del Puy’ kalejiran jarraitu zuten protesta eta horietako 27 deitu ditu deklaratzera Udaltzaingoak.

Euskara eta euskal hiztunen komunitatea “larrialdi linguistikoan” dagoela adierazi du Euskalgintzaren Kontseiluak. “Neurri egokiak epe laburrean” eskatu ditu.

Juan Mari Beltran musikariak irabazi du Eusko Ikaskuntzaren 2024ko saria, musika ondare tradizionala “berreskuratuz, zaindu eta transmititzeagatik”, besteak beste.